

I. ERANSKINA-

ETEren definizioa: 2008ko abuztuaren 6ko Batzordearen 800/2008 Araudiko I. eranskinaren arabera, laguntza maila zehatz batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak adierazten dituen Tratatuaren 87. eta 88. artikulua aplikatuz:

1. artikulua

Enpresa

Enpresatzat jotzen dira jardura ekonomikoa garatzen duten entitate guztiak, forma juridikoa gorabehera. Bereziki, enpresatzat jotzen dira artisautza-jardura edo banakako edo familiako beste jardura batzuk egiten dituzten entitateak, pertsonen sozietateak eta modu erregularrean jardura ekonomikoa garatzen duten elkarteak.

2. artikulua

Enpresen kategoriak zehazten dituzten langile kopuruak eta finantza mugak.

1. ETE kategorian, enpresa txikia 50 pertsona baino gutxiagoko enpresa da, urteko negozio bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroak gainditzen ez baditu.
2. ETE kategorian, mikroenpresa 10 pertsona baino gutxiagoko enpresa da, urteko negozio bolumenak edo urteko balantze orokorrak 2 milioi euroak gainditzen ez baditu.